Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko otsailaren 24a, asteazkena — 36 — Miércoles, a 24 de febrero de 2021

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## AZPEITIKO UDALA

*Iragarkia*

2021eko otsailaren 8an Alkateak emandako Dekretu baten bitartez, Azpeitiko herrian etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak eskatu eta emateko 2021eko oinarri eta deialdia onartu dira.

Etxebizitza hutsak mobilizatzeko xedea alde batera utzi gabe, kolektibo ahulago jakin batzuek alokairuko etxebizitzak eskura ditzaten sustatu nahi da, pertsonen ordainketa-ahalmenera egokitutako errentekin.

Diru-laguntza hauek Azpeitiko Udalaren 2020-2022 Diru-laguntzen Plan Estrategikoan daude jasoak eta Udalbatzak 2020ko maiatzaren 5ean onartuak (X eranskina - diru-laguntza lerroa: Azpeitiko udalerrian etxebizitza alokatzeko laguntzak.

Behin betikoa den eta bide administratiboari amaiera ematen dion erabaki honen aurka, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean. Epeak, aipatutako bi kasuetan, oinarri hauek argitaratutako egunaren biharamunetik hasiko dira zenbatzen.

I ERANSKINA

*Azpeitiko herrian etxebizitzak alokatzeko laguntzak emateko Oinarriak eta deialdia. (BDNS kodea: 548554).*

*1. artikulua. Xedea.*

Laguntza hauen xedea, biztanleriaren kolektibo desberdinen ohiko bizilekurako etxebizitzaren alokairuaren zati ordaintzen laguntzea da: 18 eta 35 urte bitarteko gazteak, mugikortasun urria edo/eta ezgaitasun absolutoa duten pertsonak, banaduta edo dibortziatuta dauden pertsonak, 70 urtetik gorako pertsona eta alargunak, alokairu erregimenean etxebizitza bat dutenak edo 2021eko urriak 15a baino lehen egiteko konpromezua hartzen duenak.

Halaber, laguntza hauek eskuratu ahal izango dituzte, Udalaren Gizarte Zerbitzuek behar bezala justifikatutako egoeretan, etxebizitza tutelatu bat eskuratzeko eskubidea duten pertsonak eta erakunde honek, egoera hori konpontzeko behar diren baliabideak ez dituen neurrian.

Etxebizitza partekatzen duten guztiak izan ahalko dira onuradun, baldin eta errentamentu kontratua guztiek sinatzen badute. Kasu horretan, eskatzaile bakoitza bizikidetza-unitate independentetzat hartua izango da eta kontratua sinatu duten guztien artean hainbanatuta konputatuko da errenta (alokairua).

Diru-laguntza oinarri hauetan ezarritako baldintzen arabera emango da, onuradunak gutxienez 12 hilabetetan izandako alokairu gastua kontuan hartuta (2020ko urriaren 16tik 2021eko urriak 15a bitarteko epealdia) eta betiere, baldintza horiek denbora-tarte horretan mantentzen badira.

## AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

*Anuncio*

Mediante Decreto de Alcaldía de 8 de febrero de 2021 se han aprobado las bases y convocatoria 2021 para la solicitud y concesión de ayudas económicas de alquiler de vivienda en el municipio de Azpeitia.

Sin perjuicio de su finalidad para la movilización de las viviendas vacías, se pretende potenciar el acceso de determinados colectivos más vulnerables a viviendas en alquiler con rentas adaptadas a la capacidad de pago de las personas.

Dichas subvenciones se encuentran incluidas en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2022 aprobado por el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 5 de mayo de 2020 (anexo X - línea de subvención: ayudas para el alquiler de vivienda en el municipio de Azpeitia).

Contra la presente resolución, que es definitivo y pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse en el plazo de un mes recurso de reposición ante el órgano competente que haya aprobado la convocatoria, o, impugnarla directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo. Los plazos se contarán en ambos casos a partir del día siguiente a la publicación de las presentes bases.

ANEXO I

*Bases y convocatoria para la concesión de ayudas de alquiler de vivienda en el municipio de Azpeitia. (Código BDNS: 548554).*

*Artículo 1. Objeto.*

El objeto de las presentes ayudas es el de contribuir en parte del pago de alquiler de la vivienda destinada a domicilio habitual de distintos colectivos de la población: jóvenes de entre 18 y 35 años, personas con discapacidad de movilidad reducida y/o invalidez absoluta, separados o divorciados, personas mayores de 70 años y viudos/as que dispongan de una vivienda en régimen de alquiler o se comprometan a hacerlo antes del 15 de octubre del ejercicio 2021.

Asimismo podrán acceder a estas ayudas, en situaciones debidamente justificadas por el Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento, las personas que tengan el derecho de acceder a una vivienda tutelada en tanto esta entidad no cuente con los medios necesarios para solventar esta situación.

Podrán ser beneficiarias aquellas personas que compartan una vivienda siempre que el contrato de arrendamiento se suscriba con todos y cada uno de ellos. En tal supuesto, será considerada cada una de las personas solicitantes como una unidad convivencial independiente, y la renta (alquiler) será computada de forma prorrateada entre cada uno de los suscribientes del contrato.

La subvención se realizará según las condiciones establecidas en las presentes bases, para el gasto de alquiler asumido por el beneficiario durante un mínimo de doce meses (periodo comprendido entre el 16 de octubre de 2020 y 15 de octubre de 2021) y siempre y cuando dichas condiciones se mantengan durante dicho periodo de tiempo.

EK\CV GAO-I-2021-01015

Araudi honetan jasotakoari jarraiki, alokairu edo diruz lagundu daitekeen kontzeptutik kanpo geldituko dira, garajeari dagozkionak bai eta kontribuzio edo zerga kontzeptupean sor daitezkeenak ere, dagokion kontratuan berariaz jasota egonda ere.

Alokairuko hileko kuotatik 30 euroko balio finko bat kenduko da, aurreko paragrafoan deskribatutako garaje edo kontribuzio edo zerga kontzeptuengatik, alokairu kontratuan sartuta badaude eta horietako bakoitzaren hileko kostuaren berariazko justifikaziorik aurkezten ez bada.

Onartutako oinarrien arabera, alokairuaren gehieneko zenbatekoaren baitan –550 euro– eskaria balioesterakoan kontuan hartu beharreko kontzeptu guztiak sartuak daudela zehazten da (esate baterako komunitateko bastuak,...).

Beste erakunde batzuen programak.

Eusko Jaurlaritzak onartu duen alokairurako laguntzak Gaztelagunek, udal laguntza hauek baino lehentasun handiagoa izango du. Eskatzaileak derrigorrez eta lehentasun izaerarekin (udal laguntzaren ebazpena aurretik) tramitatu izan beharko du gobernuaren laguntza, eta hura ez badu lortzen bakarrik izango du udal laguntza hauek jasotzeko eskubidea. Eusko Jaurlaritzaren laguntza derrigorrez tramitatu behar hori salbuetsita egongo da, ain zuzen ere udal laguntzen organo kudeatzaileak izaera objektiboz zehazten baldin badu eskatzaileak ez lituzkeela beteko inolaz ere, Eusko Jaurlaritzaren laguntzen oinarriak.

Irizpide bera mantenduko da etxebizitzako laguntza osagarrien kasuan (Lanbide) eta Eskubide Subjektiboko Prestazioaren kasuan ere.

*2. artikulua. Aurrekontua.*

Programa honen bidez deitutako diru-laguntzen zenbatekoa 90.000 eurokoa da, eta «Alokairu laguntzak/Ayudas alquiler» izeneko diru partidaren kontura finantzatuko da: 1.1100.480.152. 30.02.2021.

*3. artikulua. Onuradunak.*

Indarrean dagoen aurrekontu ekitaldiaren kargura emango diren diru-laguntzen onuradunak izango dira, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean oinarri hauek argitaratzen diren egunean eta diruz lagungarri den epealdian, jarraian aipatzen diren baldintza zehatzak beteko dituzten pertsona edo Bizikidetza Unitateak:

A) 18 eta 35 urte bitarteko adina izatea, Bizikidetza Unitatearekin batera bizi diren menpeko adin txikikoak salbuetsita.

Diru-laguntza 36 urte betetzen diren hilaren aurreko hilabeterarte onartuko da.

B) Mugikortasun urria duten pertsonak (7 eta 15 bitarteko puntuak), bai eta ezgaitasun absolutua duten pertsonak ere. Mugikortasun urria edo ezgaitasun absolutua egiaztatzeko beharrezkoa den Txosten Teknikoa kudeatze prozesuan duten eskatzaileen eskaera onartua izango da, betiere diru-laguntza eman aurretik aipatu dokumentazioa aurkezten badute.

C) Bananduta edo dibortziatuta dauden pertsonak (sententzia judizial irmoa izan behar dute).

D) 70 urtetik gorako pertsonak.

E) Alargunak.

Halaber, laguntza hauek eskuratu ahal izango dituzte, Udalaren Gizarte Zerbitzuek behar bezala justifikatutako egoeretan, etxebizitza tutelatu bat eskuratzeko eskubidea duten pertsonak eta erakunde honek, egoera hori konpontzeko behar diren baliabideak ez dituen neurrian.

Eskatzaileen betekizunak:

a) Eskatzaile edo Bizikidetza Unitateko kideetatik inork ez izatea beren jabetzan etxebizitzarik, heren tzia edo dohaintza bidez eskuratutako etxebizitza bat edo batzuen titularkide diren

A efectos de lo dispuesto en esta normativa, queda excluido del concepto de alquiler o cantidad subvencionable, el correspondiente al garaje, así como los que se produzcan en concepto de contribuciones y arbitrios, aún cuando figuren expresamente incluidos en el correspondiente contrato.

Se descontará del coste de la mensualidad de alquiler, un valor fijo de 30 euros por garaje o contribuciones y arbitrios descritos en el párrafo anterior, cuando estén incluidos en el contrato de alquiler y no se aporte justificación expresa del coste mensual de cada uno de ellos.

De conformidad con las bases aprobadas, se especifica que dentro del importe máximo de alquiler –550 euros– están incluidos todos los conceptos a tener en cuenta a la hora de valorar la solicitud (por ejemplo los gastos de comunidad...).

Programas de otras instituciones.

El programa de ayudas al alquiler aprobado por el Gobierno Vasco Gaztelagun, será prioritaria a la presente ayuda municipal. El solicitante deberá haber tramitado necesariamente y con carácter prioritario a la resolución de la ayuda municipal, la indicada ayuda gubernamental, y sólo en caso de su no otorgamiento tendrá derecho a la concesión de la presente ayuda municipal. La obligatoriedad de la tramitación de la ayuda del Gobierno Vasco quedará exceptuada en el caso que el órgano gestor de la ayuda municipal determine con cáracter objetivo que el solicitante en ningún caso cumpliría con las bases de las ayudas del Gobierno Vasco.

Se mantendrá el mismo criterio para las ayudas complementarias de vivienda (Lanbide) o Prestación por Derecho Subjetivo.

*Artículo 2. Presupuesto.*

La cuantía de las subvenciones convocadas mediante este programa asciende a 90.000 euros, que se financiarán a cuenta de la partida económica denominada «Ayudas alquiler/Alokairu laguntzak»: 1.1100.480.152.30.02 2021.

*Artículo 3. Beneficiarios.*

Podrán ser personas beneficiarias de las ayudas con cargo al ejercicio presupuestario vigente, las personas o unidades convivenciales que, a la fecha de publicación de las presentes bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y durante el periodo subvencionable, cumplan los siguientes requisitos específicos:

A) Tener una edad comprendida entre 18 y 35 años, excepción hecha de los menores dependientes que cohabiten con la Unidad Convivencial.

La ayuda será reconocida hasta el mes anterior a aquel en que cumplan 36 años.

B) Personas con discapacidad de movilidad reducida (7 a 15 puntos), así como personas con invalidez absoluta En el caso de personas que estén en trámite para la consecución del Informe Técnico para justificar la movilidad reducida o invalidez absoluta, la solicitud será aceptada siempre y cuando antes del abono de la ayuda presenten dicha documentación.

C) Separados o Divorciados (con sentencia judicial en firme).

D) Personas mayores de 70 años.

E) Viudos/as.

Asimismo podrán acceder a estas ayudas, en situaciones debidamente justificadas por el Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento, las personas que tengan el derecho de acceder a una vivienda tutelada en tanto esta entidad no cuente con los medios necesarios para solventar esta situación.

Requisitos de las personas solicitantes:

a) Que ningún solicitante o miembro componente de la Unidad Convivencial posea vivienda alguna de su propiedad, salvo en el supuesto de que sea cotitular de una o varias vivien-

EK\CV GAO-I-2021-01015

kasuetan ezik, baldin eta titularkidetasun horren portzentaiak % 50 ez badu gainditzen eta etxebizitzetako partaidetzen balioak 75.000,00 euro ez baditu gainditzen.

Aurretik aipatu diren B) C) eta D) kasuetan, salbuetsita egongo dira etxebizitza izatearen baldintza betetzeaz honako kasuetan:

1. Bizigarritasun baldintzak betetzen ez dituzten etxebizitzak.

2. Banantze, dibortziatze edota izatezko bikote lotura amaitzeko prozesu baten ostean, etxebizitza judizialki beste ezkontidearen familia-helbide gisa esleitzen bada.

3. Etxebizitzak indarreko araudian xedatutako irisgarritasun baldinzak ez betetzea, titularrak 70 urte edo gehiagokoak diren kasuetan.

4. Apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzerakoan, jasotako sarbideei eta igogailuei buruzko xedapenak betetzen ez dituen eraikin baten parte izatea, betiere bizikidetza unitateko kideetako bat mugikortasun mugatu iraunkorra duen desgaitua bada.

Udalaren txosten teknikoa beharrezkoa izango da, aipatu etxebizitzak bizigarritasun nahiz irisgarritasun baldintzak betetzen ez dituztela egiaztatzeko.

b) Eskatzailearen Bizikidetza Unitatea osatzen duten pertsona guztiak, diru-laguntza jasoko duen etxebizitzan erroldatu beharko dira alokairu kontratua sinatu ostean (organo kudeatzailea arduratuko da baldintza hori instrukzio fasean egiaztatzeaz).

Kontratuaren titular ez diren pertsonak baleude etxe bizitzan erroldatuta, kontratuaren titularrek pertsona horien erroldako baja-eskaera egin beharko dute, diruz lagun daitekeen epearen barruan.

c) Gutxienez Bizikidetza Unitateko pertsona bat Azpeitiko herrian erroldatua egon izana, gutxienez 10 urtetan eskaera aurkezteko unean.

d) Bizikidetza Unitateko diru-sarreren muga, honakoa baino txikiagoa izango da:

— 28.000,00 euro gordin urtean (eskatzaile bakarra bada).

— 35.000,00 euro gordin urtean (bi eskatzaile edo gehiago badira).

— Banandu edo dibortziatuen kasuan, diru-sarreren zenbatekoa kalkulatzerakoan seme-alabengatiko mantenu pentsioa bai eta hipoteka kargei dagozkien hileroko kuoten zenbatekoak kenduko zaizkie.

Diru-sarrera konputagarriak zerga oinarri orokorrak eta aurrezpenaren zerga oinarriak izango dira, baita lan etekinei aplikatutako hobariak ere.

2020 ekitaldi fiskalari dagozkion diru-sarrerak hartuko dira kontuan (organo kudeatzailea arduratuko da baldintza hori instrukzio fasean egiaztatzeaz).

e) Diru-sarreren osaketari dagokionez, amaitutako azken zerga-ekitaldiko kapital errentetatik eratorritako errendimendu gordinen zenbatekoa, ezin izango da urtean 601,10 eurotik gorakoa izan.

f) Bizikidetza Unitateko kide guztiek Azpeitiko Udaleko zerga, tasa, ariel eta zehapenen ordainketak egunera izan behar dituzte.

g) Onuradunaren eta errentatzailearen artean ezin izango da inolako familia-loturarik izan odolkidetasun edo ahaidetasuneko bigarren mailaraino.

das adquiridas por herencia o donación, en las que ninguno de los porcentajes de cotitularidad supere el 50 % y el valor de las participaciones en vivienda no superen los 75.000,00 euros.

Los casos B) C) y D) anteriormente mencionados, estarán exentos del cumplimiento de la condición de ser propietario de vivienda, en los siguientes casos:

1. Viviendas que no reúnan las condiciones de habitabilidad.

2. Haber sido asignada judicialmente como domicilio familiar del otro cónyuge tras un proceso de separación o de divorcio o de extinción de parejas de hecho.

3. No reunir las condiciones de accesibilidad previstas por la normativa vigente cuando sus titulares sean personas de 70 años o más.

4. Formar parte de un edificio que no cumpla las determinaciones relativas a accesos y aparatos elevadores contenidas en el Decreto 68/2000 de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación, siempre que alguno de los miembros de la unidad convivencial sea una persona discapacitada con movilidad reducida permanente.

Será necesario informe técnico municipal para justificar el incumplimiento de las condiciones de habitabilidad y accesibilidad de dichas viviendas.

b) Todas las personas que forman parte de la Unidad Convivencial del solicitante deberán empadronarse en la vivienda objeto de subvención tras la formalización del contrato (será el órgano gestor el encargado de verificar esta condición en la fase de instrucción).

En caso de que haya personas no titulares de contrato empadronadas en la vivienda, los/as titular/es del contrato deberán formular la solicitud de baja del padrón de dichas personas, dentro del periodo de subvención.

c) Que al menos una de las personas integrantes de la unidad convivencial conste haber estado empadronada en el municipio de Azpeitia, durante al menos 10 años en el momento de presentar la solicitud.

d) El límite de ingresos de la Unidad Convivencial será inferior a:

— 28.000,00 euros brutos anuales (si es un solicitante).

— 35.000,00 euros brutos anuales (si son dos o más solicitantes).

— En el caso de separados o divorciados, para el cálculo del importe total de los ingresos, se restarán los importes correspondientes a la pensión por manutención de hijos así como el importe de las cuotas hipotecarias mensuales.

Los ingresos computables serán las bases imponibles, general y del ahorro, más las bonificaciones aplicadas a los rendimientos de trabajo.

Se tendrán en cuenta los ingresos correspondientes al ejercicio fiscal 2020 (será el órgano gestor el encargado de verificar esta condición en la fase de instrucción).

e) En cuanto a la composición de los ingresos, la cuantía de los rendimientos brutos derivados de rentas de capital del último ejercicio fiscal vencido, no podrá superar en su conjunto la cifra de 601,10 euros anuales.

f) Todos los miembros de la Unidad Convivencial tendrán que estar al corriente del pago de impuestos, tasas, arbitrios y sanciones del Ayuntamiento de Azpeitia.

g) El beneficiario no tendrá vinculación familiar con el arrendador hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad.

h) Eskatzaileek Etxebiden izena emanda edo inskripzio-eskaera aurkeztu dutela egiaztatu beharko dute. Obligazio hau ez dute bete beharko Etxebiden inskribatzeko baldintzak betetzen ez dituztenek.

i) Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan jasotako eragozpen egoeretakoren batean ez egotea eta 887/2006 Errege Dekretuaren 18. artikulutik 29.era bitartekoetan, eta Azpeitiko Udaleko diru-laguntzak emateko ordenantza arautzaileetako 5. artikuluan ezarritako baldintzak betetzea.

j) Gizarte Segurantzako betebeharrak eta Zerga obligazioak egunera izatea.

k) Pertsona horri edo bere bizikidetza unitateko edozein kideri legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea, eskaera egin aurretik (ikus beste erakunde batzuen dirulaguntzei buruzko atala).

l) Familia unitatea osatzen duten pertsona guztiek, semealaba adingabeak izan ezik, atal honetan zehazten diren baldintzak bete beharko dituzte.

*4. artikulua. Etxebizitak bete beharreko baldintzak.*

1. Diruz lagunduko den etxebizitza Azpeitiko udalerrian kokatuta egon beharko da eta dagokion bizigarritasun baimena izan beharko du.

2. Edonola ere, etxebizitzak gutxienez ondorengo bizigarritasun baldintzak bete beharko ditu:

a) Erabiltzeko moduan dagoen sukaldea, elikatze-iturri elektriko edo gasezkoa duena, eta behar bezala hornitua.

b) Dutxa edo bainuontzia duen bainugela.

c) Erabiltzeko egoeran dagoen ur bero sistema, bainugelara eta sukaldera zerbitzuarekin.

d) Erabiltzeko egoeran dagoen 220 volteko instalazio elektrikoa, dagokion buletinarekin.

e) Iturriko ura izatea.

f) Sare orokorrera isurketa duen saneamendua.

g) Kalerako aireztatzea.

h) Bizikidetza unitateko bi pertsonako (gehienez) logela bat,

*5. artikulua. Baztertzeak.*

a) Ez dira diru-laguntzaren onuradun izango honako egoera hauetan aurkitzen diren eskaera, etxebizitza edo alokairu kontratuak:

1. Sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzak.

2. Berrakurak.

3. Logelen alokairuak (logela eskubidea).

4. Etxebizitza gisa erabilitako lokalak.

5. Bizigune programaren barruan dauden alokairuko etxebizitzak.

6. Gaztelagun programako laguntza ekonomikoa, Etxebizitzarako Laguntza Osagarria (Lanbide) edo Eskubide Subjektiboagatiko prestazioa jasotzen duten etxebizitzak.

b) Alokairu errentak gehienez 550,00 €koak izango dira (eranskinak barne).

c) Ez da onartuko urte bete baino iraupen txikiagoa duen kontraturik.

d) Heuren izaera edo helburua kontutan izanik, beste udal departamendu edo erakunde autonomoren baten programei zuzendu beharrekoak.

h) Las personas solicitantes deberán justificar estar inscritas o presentar solicitud de inscripción en Etxebide. Estarán exoneradas las personas que no cumplan los requisitos para inscribirse en Etxebide.

i) No estar incursos/as en ninguna de las circunstancias impeditivas contempladas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, y cumplir las condiciones de los artículos 18 a 29 del Real Decreto 887/2006 y el artículo 5 de la Ordenanza Reguladora de Subvenciones de Azpeitia.

j) Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social.

k) Hacer valer todo derecho o prestación de contenido económico que le pudiera corresponder, con carácter previo a la solicitud, a dicha persona o a cualquiera de los miembros de su unidad convivencial (vease apartado referido a la subvención de otras instituciones).

l) Todas y cada una de las personas integrantes de la unidad familiar, salvo los hijos e hijas menores de edad, deberán cumplir los requisitos señalados en este apartado.

*Artículo 4. Requisitos que deberán cumplir las viviendas.*

1. La vivienda objeto de ayuda deberá estar situada en el término municipal de Azpeitia y debe contar con la correspondiente licencia de habitabilidad.

2. En todo caso, la vivienda, deberá contar, al menos, con las siguientes condiciones de habitabilidad:

a) Cocina en uso con fuente de alimentación eléctrica o gas adecuadamente equipada.

b) Cuarto de baño con ducha o bañera.

c) Sistema de agua caliente en funcionamiento con servicio al cuarto de baño y cocina.

d) Instalación eléctrica en uso a 220 voltios con su boletín correspondiente.

e) Disponer de agua corriente.

f) Saneamiento con vertido a la red general.

g) Ventilación a la calle.

h) Un dormitorio para cada dos personas (como máximo) de la unidad familiar.

*Artículo 5. Exclusiones.*

a) Las solicitudes, viviendas o contratos de alquiler que se encuentren en situaciones como las siguientes no podrán beneficiarse de la subvención:

1. Las viviendas de protección oficial de promoción pública.

2. Los subarriendos.

3. Los arrendamientos de habitaciones (derecho de habitación).

4. Los locales usados como vivienda.

5. Las viviendas en alquiler sujetas al programa Bizigune.

6. Viviendas que reciben ayuda económica del programa Gaztelagun, ayudas complementarias de vivienda (Lanbide) o Prestación por Derecho Subjetivo.

b) Las rentas por alquiler serán como máximo de 550,00 € (incluidos anejos).

c) No se admiten contratos de duración inferiores a 1 año.

d) Aquellos que por su naturaleza y objeto debieran haberse acogido a otros programas de otros departamentos municipales u organismos autónomos.

EK\CV GAO-I-2021-01015

Edozein kasutan, dagokion departamendu edo erakunderi helaraziko zaizkio eskaera hauek, interesatuari egoera horren berri emanaz.

*6. artikulua. Onuradunaren betebeharrak.*

Diru-laguntzetarako Lege Orokorraren 14. artikuluan eta Azpeitiko Udalaren Diru-laguntzak ematea arautzen duen Ordenantzaren 6. artikuluan jasoak datozenaz gain, onuradunak honakoak ere bete beharko ditu:

— Ematearen oinarrian den helburu zehatza betetzeko erabiltzea diru-laguntza.

— Eskatzen zaien informazio osagarri guztia aurkeztu beharko diote Azpeitiko Udalari.

— Diru-laguntza ematerakoan kontutan izandako edozein gorabehera –hala objektiboa, nola subjektiboa– aldatzen bada, horren berri eman.

*7. artikulua. Eskaerak aurkeztea.*

Eskaerak Udalaren HAZ gunean edota bere Web orrian, diru-laguntza programaren barruan, jasotako eskaera orrian jasotzen den modeloa erabiliz aurkeztuko dira.

Eskaerarekin batera, jarraian zerrendatzen diren agiriak aurkeztu beharko dira (orohar, eskaera guztientzat):

1. Eskabide-orria, behar bezala beteta eta sinatuta.

2. Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren Nortasun Agiriaren edo egoitza-txartelaren fotokopia.

Adin txikikorik balego, Familia Liburuaren fotokopia ere aurkeztu beharko da. Azken agiri hau kasu guztietan aurkeztu beharko da senidetasuna egiaztatzeko, baldin eta ondorengotza alegatu bada.

3. Jaiotza ziurtagiri literala (Erregistro Zibila).

4. Etxebizitzaren alokairu-kontratuaren kopia, indarrean dagoena eta diruz lagungarri den epealdiari dagokiona (2020ko urriak 16tik 2021eko urriak 15era).

5. Banku kontu baten titularitatea egiaztatzen duen banku agiria.

6. Estatu mailan etxebizitza jabe ez izatearen ziurtagiria, laguntza eskatzen duten 18 urtetik gorako kide guztiena, jabetza erregistroak igorria eta laguntza eskaera aurkeztu baino gehienez 15 egun lehenagokoa.

7. Etxebiden izena eman izanaren edo izena emateko eskabidea aurkeztu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da.

Etxebizitza baten titular-kide izanez gero, honako agiriak ere aurkeztu beharko dira:

— Herentzia kasuan, herentziaren onarpen-agiria eta partizioaren eskritura.

— Dohaintza-kasuan, dohaintza eskritura.

— Bi kasuetan, partaidetza saldu izanaren kasuan: eskualdatze eskritura.

Banandu edo dibortziatuta dauden pertsonen kasuan:

— Epai irmoaren fotokopia bat, non zehazten den hitzartutako seme-alabengatiko mantenu pentsioa. Mantenu pentsioaren ordainketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

— Hipoteka kargei dagozkien hileroko ordainketen ziurtagiriak.

Dagokion kasuan:

— Lanbidek igorritako ebazpena (EPO kobratzea dagokion edo ez adierazten duena).

— Eusko Jaurlaritzak igorritako ebazpena (Gaztelagun alokairu laguntza kobratzea dagokion edo ez adierazten duena).

— Eusko Jaurlaritzak igorritako ebazpena (Eskubide Subjektiboaren Prestazioa kobratzea dagokion edo ez adierazten duena).

En todo caso se dará traslado de la solicitud al departamento u organismo correspondiente comunicando tal circunstancia al interesado.

*Artículo 6. Obligaciones del beneficiario.*

Además de lo dispuesto en el artículo 14 de la Ley General de Subvenciones y el artículo 6 la Ordenanza Reguladora de la Concesión de Subvenciones del Ayuntamiento de Azpeitia, son obligaciones del beneficiario:

— Utilizar la subvención para el concreto destino para el que haya sido concedida.

— Deber de aportar al Ayuntamiento de Azpeitia cuanta información complementaria les sea solicitada.

— Comunicar la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

*Artículo 7. Presentación de solicitudes.*

Las solicitudes deberán presentarse conforme al modelo de solicitud que se encuentra en las dependencias del SAC del Ayuntamiento y en su página web, dentro del programa de ayudas.

Junto a la solicitud, deberá presentarse la siguiente documentación (con carácter general para todas las solicitudes):

1. Impreso de solicitud debidamente cumplimentado y firmado.

2. Fotocopia del DNI o tarjeta de residencia, de cada una de las personas demandantes de la ayuda.

En el caso de existir menores de edad, se aportará, además, fotocopia del Libro de Familia. Este último documento será preciso, en todo caso, para acreditar la filiación en caso de alegar descendencia.

3. Certificado literal de nacimiento (Registro Civil).

4. Copia del contrato de arrendamiento de la vivienda, vigente y abarcando en todo caso el periodo subvencionable (del 16 de octubre de 2020 al 15 de octubre de 2021).

5. Documento que acredite la titularidad de la cuenta.

6. Certificado de no ser propietario/a de vivienda a nivel estatal, emitido por el registro de la propiedad como máximo 15 días antes de la fecha de entrega de la solicitud de ayudas, de todas las personas solicitantes de la ayuda mayores de 18 años.

7. Deberá aportarse el justificante de inscripción o de haber presentado Solicitud de inscripción en Etxebide.

Además, en caso de ser cotitular de vivienda será necesaria la aportación:

— En caso de herencia, aceptación de herencia y escritura de partición.

— En caso de donación, escritura de donación.

— En ambos casos, en caso de venta de la participación: escritura de transmisión.

En el caso de solicitantes separados o divorciados:

— Fotocopia de la sentencia en firme donde se estipule la pensión por manutención de hijos. Hay que presentar los justificantes de pago de la pensión por manutención.

— Justificante de pago del Importe de las cargas hipotecarias mensuales existentes.

Asimismo, en el caso que le corresponda:

— Resolución emitida por Lanbide (si le corresponde o no cobrar la PCV).

— Resolución emitida por el Gobierno Vasco (si le corresponde o no cobrar la ayuda al alquiler Gaztelagun).

— Resolución emitida por el Gobierno Vasco (si le corresponde o no cobrar la prestación por Derecho Subjetivo).

EK\CV GAO-I-2021-01015

Interesdunek eskubidea dute administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egindako agiriak ez aurkezteko, 39/2015 Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 28.2 artikuluaren arabera. Azpeitiko Udalak edozein erakunde edo administrazio publikori, oinarri hauetako hirugarren artikuluan ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatzeko behar diren agiriak eskatuko dizkio. Hala ere, eskatzaileek jarduera horren aurka egiteko eskubidea izango dute, berariaz jasoaz eskabide-inprimakian (kasu honetan, eskatutako laguntza lortzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu beharko du).

*8. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea.*

Oinarri eta deialdi hauen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

Eskariak aurkezteko epea 2021eko urriaren 15ean amaituko da.

*9. artikulua. Akatsak zuzentzea.*

Eskabideak edo harekin batera aurkeztutako nahitaezko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar laneguneko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita, atzemandako hutsak konpon ditzaten.

Emandako epea amaitu eta aurkitutako akatsak konpondu ezean, eskaera bertan behera utzi dutela iritziko da, prozedura artxibatuz, urriak 1eko 39/2015 Legeak xedatutakoarekin bat ebazpena eman eta ondoren.

*10. artikulua. Izapidetzeaz arduratzen den administrazio unitatea.*

Idazkaritza Saila.

*11. artikulua. Diru-laguntzen zenbatekoa.*

Dirulaguntzaren zenbatekoa, eskatzaileen diru-sarreren arabera ezarritako atal sistema baten oinarritzen da, atal bakoitzari portzentai bat esleituz.

ATAL SISTEMA

| *Diru-sarrerak* | *Laguntza (alokairuaren % )* |
